

TALAIAN

Traktoreak eta behiak hirian

Azken egunotan baserritarrak euskal hiriburuetan dabil-tza euren traktore, behi eta ardiekin. EHNEren deialdia-ri erantzunez ari dira hala, eta ez herritarrei kale-ikuski-zuna eskaintzearen. Sektoreak bizi duen egoera larriaren berri ematea da asmoa. Eta egoera hori aldatu beharra dago, baserritarren, beraien familien, sektorea-ren eta kontsumitzaileen onurarako. Izan ere, sektore hori ezinbesteko eta funtsezkoa da kontsumitzaileen-tzat eta egoera jasangaitza bihurtzen ari da bai Euskal Herrian baita Europan ere. Horregatik, asteartean, trak-tore, behi eta ardiek Europako hiriak bereganatu dituz-te. Eta horretan jarraituko dute berehalako neurriak har-tzen ez badira, izan ere, kasu horretan sektorea desagertu egingo da.

Baserritarrak heriotzara daramatza bitartekari eta multinazional espekulatzailen jarrerak. Horien esa-netan, oraingo egoera mantenduta lau enpresa han-dik kontrolatuko dute zer jaten dugun, jakiak nondik datozen eta nork ekoizten dituen. Nekazaritza eta abeltzaintzatik eratorritako jakien garestitzea ez da ekoizleen erantzukizuna izan, baserritarrek gero eta gutxiago kobratzen baitute produktuengatik. Horre-gatik eskatzen dituzte bidezko prezioak, ekoizpen kos-tua baino merkeagoak ez direnak. Beraz, nekazaritza eta abeltzaintza industrien eta banaketa kate handien gehiegizko irabaziaz kontrolatu beharko dira, behato-ki baten bidez. Horrek kontrolatuko luke kontsumitzaile-arengana iritsi bitartean produktuak duen diru-balioa. Baina administrazioek baztertu ezineko erantzukizuna dute.

Juan Mari Arregi

“Bertan Bilbo” liburua

PEDRO ETA ATTOR Zuberogoitia anaiek egin dute liburua eta maiatzaren 29an aurkeztuko dute. Izenburu osoa honakoa da: *Bertan Bilbo. Bizkaiko hiriburua eta en-kara: XX. mendeko historia*. Euskal Herri-ko lehen ikastolak 1957an nola ateari ireki zituen eta Euskaltzaindiak antolatu-tako txapelketen bidez nola bertsojaritza sustatu zuten kontatu dute, besteak beste. Bilboko Udaleko Euskara sailaren eskutik argitaratu da liburua.



Nafarroako ikerketa soziolinguisti-koaren emaitzak urte bukaeran

NAFARROAKO GOBERNUKO Hezkuntza Sailak jakinarazi du urte amaieran aurkeztuko dituela euskarari buruzko ikerke-ta soziolinguistikokoaren emaitzak. Emaitza horiek balio beharko lukete hizkuntz politikan aldaketa egiteko eta gutxienez eremutik eremura lehenbailehen hainbat udalerrri pasatzeko.

Bestalde, Euskarabideak –Euskararen Nafar Institutua izena utziko du– euskararen plan estrategikoa udazkenera-ko prest izango duela adierazi du.

BAHEA

Andres Urrutia euskaltzainburuak Radio Euskadin esa-nak, eib.com-ek jasoak: “Frantziako Gobernuaren urrats garrantzitsuak ematen ari da. (...) Erregimen demokrati-ko batean, frantsesa ez diren hizkuntzen ahotsa ezin dela isilarazi ohartu da norbait mugaren beste aldean”.

Yves Matxikote eta Alaitz Zabaleta EHEko kideek Berria-n esanak: “Frantses Gobernuaren helburua, izenak dioen bezala, hizkuntzei koadro bat eskaintzea da, hedabideetan (kuota eta orokortzerik gabe), irakaskuntzan (balio ez duen sistema elebidun batekin) (...). Ez gaitzezen emozio-natu! Koadro bat da eta konstituzioa ez da aldatuko”.

Txapela Buruan
to ibili munduan

Narrika, 18. Donostia
telf. 943428299 www.txapelaburuan.com

Moncloak ere legitimatzen du ETA

IBARRETXE LEHENDAKARIAREN

mezu-iltzea da honakoa Jose Luis Rodríguez Zapateroren ezetza gizar-tearen aurrean indargabetezko: "ETA-rekin bai eta lehendakariarekin ez?". Eta hala dela erantzun dio PSOEk —Jesus Egigurenek esana zuen lehena—, ETArekin merezi duela Loiolakoak hitz egitea, berarekin ez. Alegia, ETAk armak utz zitzakeela Loiolan akordiorik lortu izan balitz, eta Ibarretxek ez duela hori eskaintzerik. Ba al da politika armen bidez egiten dutenei haize handiagorik emateko modurik?

Ia 50 urteko historiak ETArig argi erakutsi dio armez aritzeak eragin ahalmen handia ematen diola eta ez du behar bultzada hori berean jarduteko, baina primeran datorkio zalantza

barik. Etika jardun politikoaren lehen lerroan jartzea etengabeko helburu beharko luke indar politikoentzat, baina errealitateak emaitza onak lortzetik oso urruti daudela erakusten du etengabe. Munduan indarra etika baino garrantzitsuagoa da gaur egun. ETAk berak sionismoak duela 60 urte izan zuen indar armatuaren laurdena balu, seguruenik lortua luke negoziazio prozesu arrakastatsuago batean aurrera ateratzea. Baina jadanik ez du endroke posizioa gainditzeko indarririk, ilegalizazioen politikek epe ertainera horretarako indarririk ematen ez badiote bederen.

Behin eta berriro kontrakoa entzuten den arren, bakea eta herri honek bizi duten egoera politikoa, nahi ala

ez, lotuta daude. Horregatik da zilegi pentsatzea bakea negoziazio prozesu batetik baino ez dela gauzatuko, indar politiko nagusienak ordezkatuko dituen prozesu batetik.

Ibarretxek Moncloaren ezetza jaso du bere lehen urratsean eta horrek hauteskunde autonomikoen kanpaina luzearen hasieran jartzen gaitu. Begitantzeko gaitza den beste negoziazio prozesu baten lehen urratsak ere izan zitezkeen, hirukiaren erpenean oskolari baino Loiolako mamariari bete-betean helduko baliote. Paper horietako edukietan da konponbidearen giltza, horren jakitun dira eragile politiko nagusiak. Zoritzarrez, hauteskudeetan edo jarduera armatuan, orain indarrak metatzeko garaia da.



LATTUN 121

Datorren asteko ARGIArekin

Mahai-ingurua

Iñaki Antiguedad
Xabier Barandiaran
Garbiñe Biurrun
Jose Luis Elorza

Iritziak

Ramon Etxezarreta
Xabier Gurrutxaga
Ander Iturriotz
Nekane San Miguel

Ibarretxeren bide orria

